

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure helburu nagusia da, pertsona ezinduek kirola egin ahal izatea.

Gure funtsezko jarduera zerbitzu bat ematea da pertsona hauek uretako kirolak egin ditzaten. Gure enpresak, batez ere, ezinduekiko tratuan jardungo luke ariketa egiterakoan, hau da, guk, enpresa gisa, nahi duguna da pertsona ezinduek uretako kirolak beste edozein pertsonak bezala egin ahal izatea.

Bestalde, makinak guk sortzen ditugu pertsona bakoitzarentzat egokitua, espezifikoki. Gainera 4 monitore egongo dira 7 edo 8 ikasleentzako klase bakoitzean.

Ezinbestekoa da pertsona hauek kirol hau modu egokian egin ahal izateko, ezintasun motaren arabera bakoitzari egokitzen zaion materiala lortzea eta egokitzea. Hori ere oso garrantzitsua izango da gure zerbitzu eskaintza kalitatezkoa izateko.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgune a eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere.

